

# TXORIERRIKO BERDINTASUNERAKO PLANA 2024-2027

2023ko azaroa



# AURKIBIDEA

1	SARRERA .....	1
2	HITZAURREA.....	1
3	ARAUDI MARKOA.....	3
4	METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA .....	5
5	PLANAREN PRINTZPIO GIDARIAK ETA BERMEAK .....	9
6	PLANAREN INDARRALDIA .....	13
7	ESKU-HARTZE ARDATZAK .....	15
8	HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK .....	19
9	EKINTZA-PLANA .....	22
9.1	Mankomunitateko ekintza-plana .....	23
9.2	Derioko ekintza-plana .....	40
9.3	Larrabetzuko ekintza-plana .....	54
9.4	Lezamako ekintza-plana.....	70
9.5	Loiuko ekintza-plana.....	85
9.6	Sondikako ekintza-plana.....	98
9.7	Zamudioko ekintza-plana.....	112
10	PLANAREN KUDEAKETA-SISTEMA.....	127
10.1	Planaren garapena, jarraipena eta ebaluazioa egiteko egiturak.....	127
10.2	Plana garatzeko baliabide ekonomikoak.....	131
10.3	Planaren ebaluazio-sistema .....	131
10.4	Inpaktu adierazleak .....	132
10.5	Urteko kudeaketa-planak.....	134
10.6	Planaren segimendua.....	134
11	PLANAREN KOMUNIKAZIOA .....	138

## 1 SARRERA

Dokumentu hau Elhuyarrek osatu du, TzMren eta huraosatzen duten sei udalek eskariz eta Mankomunitateko Berdintasun Sailarekin elkarlanean.

TZMk eta beraosatzen duten sei udalek azken urteetan egindako lanari jarraipena eman eta salto kualitatibo bat eman nahi dute, hurrengo urteetarako estrategia eta bide-orria ezarriz.

Aurkibidean argi ikus daitekeen bezala, Berdintasunerako Planak ekintza konkrituak zehazteaz gain, lanerako marko oso bati egiten dio erreferentzia, prozesu osoan zehar parte hartu dutenek adostasunez landutakoa.

## 2 HITZAURREA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak<sup>1</sup> eta bera osatzen duten sei udalek denbora tarte ezberdinetan egin eta garatu dituzte Berdintasun Planak. Derioko Udalak 2010ean egin zuen bere lehenengo Berdintasunerako Plana eta 2014ean II. Plana diseinatu zuen; Larrabetzuko Udalak 2008an abiatu zuen lehen Planaren diseinua eta egun IV. Plana du indarrean; Lezama 2010ean hasi zuen lehenengo Plana osatzeko bidea eta egun III. Plana du indarrean jada; Loiu 2010.ean diseinatu zuen I. Plana eta 2016rarte izan zuen bigarrena; Sondikan 2013an abiatu zuten lehen Planaren diseinu eta garapena eta egun III. Plana du martxan; Zamudiok 2010ean diseinatu zuen lehen Plana eta egun, III. du indarrean. Udal bakoitzaren Berdintasunerako Planaz gain, Mankomunitateko I. Berdintasunerako Plana diseinatu zen 2013an, ikuspegi orokorrago batetik berdintasunean eragiteko helburuarekin.

Honela bada, 2010. urteaz geroztik Txorierriko Udal guztiek martxan izan dituzte Berdintasunerako berariazko Planak eta, baita, mankomunitate mailako Plana ere. Urte hauetan Txorierriko mankomunitate mailako berdintasun teknikaria izan dute, zeinak lankidetzaren etengabea izan duen udal guztietako Kultura Sailekin; hori horrela, hilean behineko bilkurak eraman dituzte aurrera Gazteria, Euskara, Esku-hartze Komunitario eta Berdintasun sailtako ordezkariekin. Zerbitzu honek behar bezala funtzionatu dezan eta berdintasun politikak mankomunitateko marko batetik ez ezik udalerrri bakoitzaren errealitateetatik garatzea ahalbidetuz. Beste sailetan ez bezala, Berdintasun Sailak bi mailatan egiten du lan: Mankomunitateak eskualdeko udalerrri edo herritar guztientzat antolatutako jarduera komun bitartez eta udal bakoitzak bere herritarrentzat antolatutako jarduera espezifikoen bitartez. Bigarren kasu horretan, Mankomunitateko berdintasun-teknikariak laguntza tekniko eskaintzen dio udalerrri bakoitzeko Berdintasun Sailari.

Mankomunitateko zerbitzu honen helburua betetzeko, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorra lortzeko, genero-ikuspegia zeharka landu beharrekoa da. Helburu horri erantzunez, berdintasuna mankomunitateko sail guztietan zeharkakotasunez landu ahal izateko, egunez egun elkarlanean aritzen da Esku-hartze Komunitario eta Euskara Sailtako teknikariekin.

Koordinazio egiturei dagokienez, urteak dira mankomunitateko berdintasun teknikariak erakunde publiko ezberdinekin duen harremana, besteak beste, Emakunde, Berdintasuna, Eudel edota Emakumeen eta gizonen berdintasunerako lurralde sarea (Derio, Larrabetzu, Lezama, Sondika eta Zamudioko Udalak dira Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lurralde Sareko kideak).

Era berean, mankomunitateko berdintasun teknikariak harreman etengabea izan du hainbat udalerririk dituzten emakume-elkarteekin baita eta, antolatutako dauden bost eragile feministekin ere. Bada, herritarrekin elkarlanerako eta koordinaziorako espazioak sortu eta mantendu dituzte denbora guzti honetan.

Emakume kolektibo, mugimendu eta elkarteekin ez ezin, Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak harreman estua du hezkuntza-komunitateko kide diren eskola publikoko zuzendariekin, instituetako ordezkariekin eta Politeknika Txorierriekin ere. Hezkuntza-komunitatea

---

<sup>1</sup> Hemendik aurrera TZM laburdura erabiliko dugu dokumentuan zehar.

berdintasunean aurrera pausoak emateko eragile nagusietakoa izanik, azken urteetan harreman hauek sendotu eta elkarlanean aritzeko bideak jorratu ditu Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak.

Guzti honetaz gain, Mankomunitateko Berdintasun Teknikariak bestelako funtzio batzuk ere betetzen ditu: Berdintasun Sailak antolatzen dituen jarduerak ezagutzera emateko hedapenerako euskarriak sortu eta zabaltzea, herritarrentzako genero-indarkeriari buruzko aholkularitza eskaintzea edota hiru hilean behin Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuen Batzordean Berdintasun Sailak antolaturiko programa eta ekintzen jarraipena egitea.

Asko eta oso anitzak dira azken urte luzeetan Txorierriko Berdintasun Sailak aurrera eramandako programak. Eskaintza zabal honetan topa ditzakegu amei laguntza psikologia emateko tailerra, harreman afektibo sexualean indarkeria eta sexismoa prebenitzeko tailerra, institutuan indarkeria sexista prebenitzeko tailerra, maskulinitate berrien inguruko saioa politikariek, berdintasunaren arloko prestakuntza marketinean eta erakusleihu apainketan, Politeknikako ikasleentzat berdinen arteko harremanak genero-ikuspegiarekin tailerra, homofobiaren eta transfobiaren kontra sentsibilizatzeko tailerra, eta abar luze bat.

Gaineratu behar da, Udal bakoitzak bere Plana eta politika zehatzak landu baditu ere, mankomunitate mailako urteroko memoriak osatu dituztela 2014tik hona. Bertan, Txorierri mailako jarduera, koordinazio-lan eta beste egiteko batzuk jasotzeaz gain, udalerrri bakoitzak aurrera eramandako ekintzak jaso dira. Bada, Txorierri ikuspegi orokor batetik lan egiten eta, aldi berean, tokiko errealitateetara egokitzen jakin dute berdintasun politiken diseinu eta garapenari dagokionean.

Zentzu honetan, aipagarria da TZMren eta huraosatzen duten sei udalen Berdintasun arloak azken urteetan izan duen erronketako bat berdintasun politika eraginkorrak, mankomunitate ikuspegitik eta, era berean, udalerrri bakoitzaren tokikotasunera egokiturikoak garatzea izan da.

Aurrekari horiekin, 2022an Txorierriko Zerbitzuek Mankomunitateko eta huraosatzen duten sei udaletan indarrean zeuden Plan guztien ebaluazioa egiteari eta herriko egoera aztertzeari ekin zion, eta prozesu honetatik ondorio garbi bat atera zuten denek: zazpi planen helburuak betetzeko zailtasunak izan dituzte eta horregatik, mankomunitatea osatzen duten sei udalerrientzako Plan bakarra egiteko autua egin dute, hau izango delakoan eraginkorrena. Testuinguru honetan, Txorierriko Zerbitzuak Mankomunitateko eta huraosatzen duten sei udaletako berdintasunerako Plana diseinatzeko prozesua murgildurik ibili da 2023 urtean zehar.

Plan honen helburu nagusia Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta huraosatzen duten sei udalek berdintasunean aurrerapausoak ematen jarraitzeko tresna eraginkorra eta errealista diseinatzea izan da, baita lanean jarraitu ahal izateko oinarriak ezartzea ere. Honela, Emakunderen VII. Planaren ardatzei jarraiki, baina Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta huraosatzen duten sei udalen errealitatera egokitu den Plan bat diseinatu dugu.

Txosten honetan dago jasota emaitza, Txorierriko Berdintasunerako Plana, alegia.

### 3 ARAUDI MARKOA

Emakumearen Aurkako Bereizkeria era guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioak (NBEren Biltzar Nagusiak 1979ko abenduan onetsi zuen, eta Espainiar Estatuak 1984ko otsailean berretsi) emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioa aldarrikatu zuen. Konbentzio horren 2. artikuluan, konpromiso hau hartu zuten NBEko kideek: *“printzipio hori legeen bidez edo beste bitarteko egoki batzuek erabiliz benetan betearazten dela bermatzea”*.

Nazio Batuen Erakundeak 1995ean, Beijineko Emakumeari buruzko IV. Munduko Konferentzian adierazi zuen munduko herrialde guztien bakea eta garapena lortzeko ezinbestekoa zela emakume eta gizonen berdintasuna lortzea. Helburu horretara iristeko politika publiko guztiek **genero-ikuspegia beren jarduera guztietan txertatzeko konpromisoa** hartu zuten. Horrez gain, ekintza positiboak idatzi zituzten, urgentzia handieneko 12 gaitan banatuta.

2015. urtean, *Garapen Jasangarria Helburu 2030* dokumentua adostu zen Nazio Batuen Erakundearen. Mundu mailako 17 helburu estrategiko ezarri zizkion nazioarteko agenda politikoari. Bertan, 5. Helburu estrategikoan horrela jasotzen da: *“Genero berdintasuna eta emakume eta neskak ahalduz lortzea”*. Dokumentu honetan genero ikuspegia 17 helburuetatik 14etan txertatua dago genero adierazleen bidez, aipatutako helburu espezifikoaz gain.

Bestalde, Amsterdamgo Ituna 1999ko maiatzaren 1ean indarrean sartu zenetik, emakumeen eta gizonen berdintasuna Europar Batasunaren funtsezko printzipio bihurtu da. Gaur egun, 2009ko abenduaren 1ean indarrean sartu zen **Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuak** azpimarratzen du emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko helburua estatu kideen politika eta ekintza guztietan txertatu behar dela (8. artikulua).

**Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9.1. artikuluan**, berriz, berdintasunerako eskubidea eta sexuaren ziozko bereizkeriarik eza aldarrikatzen da. Horrez gainera, Estatutuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da, herri-aginteez pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeko betebeharra dutela berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin.

Era berean, **otsailaren 5eko 2/1988 Legean, Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoan**, jasotzen du lehen mailako gaia dela emakumeekin bereizkeriaz jokatzeko era guztiak benetan ezabatzeko betebeharra. Gauzak horrela, emakumeek gure Erkidegoko alor guztietan esku-hartu ahal izateko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituela euskal administrazioak.

Gaur egun indarrean dagoen **EAEko Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako VII. Planean**, XII. Legegintzaldian berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduera bideratu behar duten gidalerroak daude bilduta.

Aipatutako EAEko berdintasunerako gidalerro horiek gobernantzaren ildotik lan egin beharra ezartzen dute, eta, **genero mainstreaming-a eta gobernantza** daude oinarrian. Baina, horrez gain, beste hiru ardatz ere jasotzen dira lanerako: **emakumeen ahalduz, ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea, eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak**.

2022ko martxoaren 3an onartu zen **Emakume eta gizonen berdintasunerako 4/2005 euskal legearen bigarren testu moldaketa**. Orain, 4/2005 Legeak, emakume eta gizonen

berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarako legeak ekarpen berriak jasotzen ditu (hemendik aurrera, 4/2005 EGBL). Moldaketa berriak Euskadiko marko arautzailea Europako Kontseiluko **Emakumeen aurkako eta etxeko indarkeriaren aurkako Istanbulgo Hitzarmenera egokitzea** zuen helburu nagusietako bat. Horrek ekarri du emakumeen aurkako indarkeria matxistaren markoa berritzea, zerbitzuetan zehaztasunak ezartzea eta zerbitzuen hartzaileetan emakumeez gain, haien menpeko senideak sartzeari, batez ere adin txikikoak.

Hala ere, 4/2005 EGBLk, oraindik, bere 7.artikuluan ezartzen ditu **tokiko administrazio publikoen zereginak berdintasun politikei dagokionez**. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak eta bera osatzen duten sei udalek zeregin horiek garatu beharko ditu bere Berdintasunerako Planaren bidez.

Horrez gain, lege horretako 15. artikulua 2. puntuan ezartzen da **Tokiko administrazioek Berdintasunerako Planak edo programak izateko betebeharra dutela**.

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak 2013an landu zuen Txorierriko Berdintasunerako I. Plana. Bigarren Planak 2018-2021 indarraldia zuen. Horren ondoren, Berdintasun arloa lanean aritu da, nahiz eta Plan baten markoan ez izan.

Marko arautzaile guzti honi jarraiki diseinatu dugu Txorierriko Berdintasunerako Plana.

## 4 METODOLOGIA ETA LANEKO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

### 4.1 Oinarri metodologikoak

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako prozesua metodologikoki diseinatzeko IAP (Ikerketa Ekintza Parte-hartzailea) izenaz ezagutzen dugun metodologiaren oinarriak hartu ditugu kontuan. Xedea talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabaltzea eta prozesu horien bidez, harremanak aldatzeaz gainera, posizionamenduak, egitasmoak eta estrategiak eraikitzea da.

IAP metodologiak prozesuan parte hartzen dutenei gizarte-sareak berreraikitzeo aukera ematen die, alegia, hausnarketaren bidez gizarte-sare horiek eraldatzeko aukera. IAP metodologiak gizarte-zientzietan tradizionalki erabili diren metodo eta teknikak erabiltzen ditu, baina berezitasun bat du: dinamizazioarekin eta parte-hartzearekin lotutako teknika berezien erabilera.

Jarraian, Txorierriko Mankomunitateko Berdintasun Sailak eta Elhuyarrek prozesu hau garatzeko kontuan hartu dituzten oinarriak edo printzipioak jasotzen dira:

- **Parte-hartzea:** Genero-gaien inguruan hausnarketa egin eta eztabaidatzea izan da prozesu honen xedea, emakumeen beharrak, zailtasunak eta nahiak eraikuntza kolektiboaren bidez definitzea. Horrela, bidean parte-hartzaileek prozesua bere egitea izan da asmoa.
- **Malgutasuna:** prozesuak iraun duen bitartean parte-hartzaileek beharrezko jo dituzten aldaketak/moldaketak proposatzeko aukera izan dute.
- **Komunikazioa:** komunikazioa beharrezkoa da herritarrei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidatzeko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab. Horregatik, prozesuaren hasieratik garrantzia handia eman diogu gai honi eta Udaleko komunikazio arduradunarekin eskuz esku lanean jardun dugu.
- **Aniztasuna:** garrantzitsua da, berdintasun-gaiak jorratzen ditugunean, era guztietako herritarrak erakarri eta inplikatzeko moduko prozesua diseinatzea, eta, beraz, aniztasuna kontuan hartzeko ahalegina egin dugu.
- **Emakumeen eta gizonen berdintasuna:** egitasmoak genero-ikuspegia bermatu du ezinbestean, bai prozesu-ikuspegitik eta baita emaitzaren ikuspegitik ere. Horrek esan nahi du, emakumezkoen interesak, nahiak, ikuspegiak, arazoak, proposamenak, irtenbideak... modu espezifikoan aintzat hartu direla. Horretarako hainbat alderdi zaindu ditugu: parte hartzeko tokiak eta ordutegiak, emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatuko dituzten laneko dinamikak martxan jartzea, etab.



## 4.2 Prozesuaren urratsak

Txorierriko III. Berdintasunerako Plana diseinatzeko prozesua 2023ko otsailean abiatu genuen. Jarraian, hilabete hauetan ikuspegi metodologiko batetik prozesuaren urratsak jasota daude:

### 0. Aurre-lanak:

- **Talde Eragilea** eratu dugu, prozesuari etengabeko segimendua egiteko. Honako hauek osatzen dugu Talde eragilea: berdintasun teknikariak, mankomunitateburuordeak eta Elhuyarreko teknikariak.
- **Lanerako prozesua egokitu** dugu. Talde Eragileko lehenengo bilerak proposamenean definitutako prozesua egoerara eta udalaren beharretara egokitzeko balio izan zigun. Kronograma egokitu genuen.

**Dokumentazioa aztertu** dugu. Txorierriko Berdintasunerako Plana diseinatzeko abiapuntua, orain arte TZMk zein udalerrri bakoitzak egindako lanaren azterketa egitea izan da. TZMan eta hura osatzen duten sei udaletan aurreko Planek izan duten garapena sakon aztertu dugu eta azken urte hauetan burututako ekimen garrantzitsuenak zein izan diren identifikatu ditugu. Honez gain, prozesuan zehar berdintasun politiketan aurrera egiteko hutsuneak non dauden identifikatu ahal izan ditugu etorkizuneko lanaren nondik norakoak zeintzuk izan beharko diren jakiteko. Bada, udalerrri bakoitzak zein mankomunitateak 2022an egindako diagnostikoak landu eta aztertu ditugu.

### 1. Berdintasunerako Plana diseinatzeko fasea:

Fase hau martxoak abiatu dugu.

- Lan hau aurrera eramateko ezinbestekoa izan da Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean berdintasun politikak aurrera eramaten lan egiten duten pertsonekin **sakoneko elkarrizketak** izatea eta pertzepzio ezberdinak jasotzea, batez ere azken urteetan arduradun teknikoa aldatu dela aintzat hartuta.
- Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako errealitatea zein den eta eguneroko bizimoduan berdintasun-ikuspegitik oztopo eta erronka nagusiak non dauden bertan bizi eta lan egiten dutenek dakite ongien. Bestalde, aldaketa eragiteko, behar-beharrezkoa izan da **herritarren partaidetzaz gain, ordezkari politikoaren eta udal-teknikarien konpromisoa ere lortzea prozesuan zehar**, planaren garapenean ezinbesteko aliatuak izango baitira honek behar bezala funtzionatuko badu. Horretarako ere lan egin dugu hilabete hauetan zehar eta ordezkari politiko zein udal-teknikariekin eskuz eskuko lana egin dugu eta Planarekiko atxikimendu eta kontsentsu zabala bilatu dugu.

Egungo egoeraren analisisian eta hemendik aurrera Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean eta hura osatzen duten sei udaletan diseinatu beharreko Berdintasun Planean elementu giltzarriak zein diren identifikatzeko **partaidetza soziala, politikoa zein teknikoa** behar izan ditugu, beraz. Hori dela eta, hiru plano horiek kontuan hartu dituen prozesua eraman dugu aurrera.

- **Herritar eta eragileen partaidetzarako kanal desberdinak eraiki ditugu:** talde-elkarrizketak eta lan-saioak, hain zuzen. Lan hau lantalde sektorialen bidez egin dugu, hau da, Emakunderen VII. Berdintasunerako Plana ardatzen duten eremu bakoitzeko Batzorde bat osatu dugu. Ardatz bakoitza lantzeko Batzordearen osaera mankomunitateko zein udalerrietako norbanako, teknikari, eragile edota espezialista diren pertsona gakoak identifikatu ditugu.

Jarraian jaso ditugu aurrera eramandako Batzorde Sektorial zein sakoneko elkarrizketen parte-hartze datuak eta saioen nolakotasunak:

BATZORDE SEKTORIALA	NOLAKOTASUNA	PARTE-HARTZEA		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira
Gobernu Ona: udal-teknikariak	Udalerri ezberdinetako teknikariak parte hartu dute saioan: kultura, euskara, parte-hartzea eta berdintasun sailetakoko kideak gerturatu dira.	8	2	10
Gobernu Ona: Idazkariak	Mankomunitateko, Derio, Lezama eta Loiuko idazkariak izan dira saioan.	4	0	4
Ahalduntzea	Udalerri ezberdinetako Talde Feminista eta Emakume Elkartetako emakumeak bertaratu ziren, ahalduntzearen eta parte-hartze soziopolitikoaren erronken inguruko hausnarketak izan genituen.	9	0	9
Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak	Gizarte Zerbitzuetako langileak eta udaltzaingoarekin batera indarkeria matxistaren detekzioan, arreta eta oneratzearen inguruko prozedurez jardun dugu, esku-artean ditugun behar eta erronkak definituz.	5	1	6
Ekonomia eta gizarte-antolakuntza eraldatzea	Ikastetxe, elkarte eta gizarte eragile ezberdinetako pertsonak batu gara, bizitzako arlo ezberdinetan berdintasunaren bidean ditugun erronkak identifikatu eta hausnarketa partekatu bat egiteko.	4	1	5
Guztira		28	4	32

Prozesuaren lehen fase honetan erronkak eta Planaren oinarriak lantzeko aukera izan dugu. Herritarren, talde feministen eta udal-teknikarien errealitateak gertutik ezagutu, berdintasun politiken bidean emandako urratsak ezagutu eta egun esku-artean ditugun erronka eta lehentasunak identifikatzeko ariketa kolektiboa izan da. Behin lanketa hau eginda Berdintasunerako Planaren zirriborria prestatu dugu eta Talde Eragilean kontrastatu. Azkenik, arestian aipatu gisan ordezkari politikoaren zein udal-teknikariaren inplikazioa bilatzeko, ardura partekatuen ideian sakontzeko eta Planarekiko kontsentsu zabala lortzeko bi lan-saio eraman ditugu aurrera:

KONTRASTE SAIOA	NOLAKOTASUNA	PARTE-HARTZEA		
		Emakumeak	Gizonak	Guztira
Ordezkarri politikoak eta idazkariak	Mankomunitateko buruordea eta administrazio orokorreko teknikaria, Sondikako alkatea eta idazkaria, Lezamako alkatea eta idazkaria, berdintasun zinegotzia, Zamudioko alkatea, Derioko berdintasun zinegotzia, Larrabetzuko alkatea, zinegotzia eta idazkaria, Loiuko idazkaria eta mankomunitateko berdintasun teknikaria elkartu gara. Planaren lehen zirriborria aurkeztu, udalerri bakoitzaren lehentasunak identifikatu eta kontsentsu zabala lortu dugu saio honetan.	10	4	14

Udal- teknikariak	Larrabetzuko liburuzaina, Loiuko kultur teknikaria, Mankomunitateko euskara teknikaria, Derioko kultur teknikariak (2), Derioko kontu-hartzailea, Trebatzaile ibiltaria, Berbalaguna programaren koordinatzailea, Lezamako kultur teknikaria, Mankomunitateko esku-hartze teknikaria, Hiritartasun teknikaria eta mankomunitateko berdintasun teknikaria elkartu gara. Plana kontrastatu, eguneroko lanean genero-ikuspegia txertatzeko baliabideen inguruan hausnartzeko aukera izan dugu.	9	2	11
<b>Guztira</b>		<b>19</b>	<b>7</b>	<b>25</b>

Prozesuan parte hartu duten pertsonak Planarekiko asetasun maila altua erakutsi dute, Mankomunitate mailako helburu estrategiko amankomunak definitzea eta, ondoren, helburu operatibo bidez udalerrri bakoitzaren errealitateak kontuan hartuz tokian tokiko erritmo eta beharrei eraginkortasunez erantzuteko Plana osatu dugu.

## 2. Prozesua baloratzeko fasea:

Talde Eragilearekin prozesuaren balorazioa egin dugu eta jaso ditugun ekarpen nagusien artean honakoak:

- Prozesuan parte-hartzea anitza izan da. Profil askotariko pertsonak hartu dute parte Planaren diseinuan: udalerrri ezberdinetako talde feministak, norbanakoak, irakaskuntza mundukoak, euskalgintzakoak, udal teknikariak, ordezkari politikoak eta idazkariak.
- Oro har, saioen gaineko balorazioa ona izan da, metodologiarekin gustura egon dira prozesuan parte hartu duten pertsonak.
- Planak kontrasterako saioetan asetasun maila altua izan zuen eta hasirako espektatiba eta helburuak bete dira.
- Herri bakoitzaren errealitatea jasotzen duen Plana osatu dugu, bide-orri eta estrategia partekatu batetik abiatzen den, baina, udalerrri bakoitzaren ibilbidea aintzat hartzen duen Plana hain zuzen.

## 5 PLANAREN PRINTZPIO GIDARIAK ETA BERMEAK

### 5.1 Printzipio gidariak

Planaren garapenean zehar aintzat hartuko ditugun eta gure lanaren oinarri izango diren printzipioak dira jarraian jaso ditugunak.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak berdintasunaren printzipioa eta euskal botere publikoen jarduna arautu behar duten printzipio orokorrak jasotzen ditu. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean eta hura osatzen duten sei udalen Berdintasunerako Planak horietako batzuetan sakontzea proposatzen du, proposatutako esku-hartzeak gidatzeko estrategikoak direlako. Jarraian, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatean eta hura osatzen duten sei udalen Berdintasunerako Planaren printzipio gidariak deskribatzen dira, hurrengo urteetan egingo dugun lanean beti gogoan izan beharko ditugunak eta, beraz, zeharlerrotasunez lantzen joango garenak.

#### **Paradigma feminista**

Feminismoak gidatzen du Berdintasunerako Plana, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio anitzak barne. Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko-politiko honetan, agenda feminista aintzat hartzean datza.

#### **Tratu-berdintasuna eta ikuspegi interseksionalaren integrazioa**

Emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu beharko da. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan.

Era berean, desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoa beste diskriminazio faktoreekin (arraza, klase soziala, desgaitasun-maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak) duen aldibereko erlazioa. Estrategia gisa ulertuta, diskriminazioaren oinarriak lotzen ditu diskriminazio horiek elikatzen dituen gizarte, ekonomia, politika eta lege-inguruarekin eta presio eta pribilegio bizipenak egituratzen dituenarekin.

#### **Genero-ikuspegiaren integrazioa**

Analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkarrean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonek eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.

#### **Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak ezabatzea**

Rol eta estereotipoak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeraren oinarri dira, eta horien arabera esleitzen zaie emakumeei etxeko eremuaren ardura, eta gizonei, berriz, eremu publikoarena, balorazio eta aitoren ekonomiko eta sozial oso ezberdinak eginez. Hori haintzat hartuko ditugu Planaren garapenean, kotuan izanik, etxeko lanen eta zaintza-lanaren aitortpena

sustatu behar dutela, politika publikoen elementu nagusi gisa. Baita ere, enpleguaren arloan gertatzen den segregazio horizontalari aurre egiteko, lanen balorazio desberdinari helduko dio.

### **Emakumeen ahalduntzea**

Planaren ardatzetako bat izateaz gain, agenda osoa gidatzen duen printzipioa ere bada, emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua den heinean. Eta modu integralean hartu behar da aintzat, ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa barnebilduz.

### **Parte-hartzea**

III. Plana garatzerakoan, talde feministen eta emakume taldeen, gizarte-eragileen eta, oro har, herritar guztien partaidetza eta elkarrizketa bultzatuko dugu; hala, beste partaidetza-eredu bat faboratuko da, demokratikoagoa, taldeen ekarpenei legezketasun handiagoa emango diena eta haien ekarpenek benetako eragina izatea erraztuko duena. Horretarako, parte hartzeko gune eta bitarteko egokiak sortuko edo egokituko dira, irisgarritasun unibertsala bermatuko dutenak.

### **Emakumeen kontrako indarkeria matxista prebenitzea, artatzea eta desagerraraztea.**

Indarkeria matxista bakea eta benetako berdintasuna lortzeko oztopo nagusienetakoa da eta mugimendu feministak azken hamarraldian egindako aldarrikapenei esker gai hau agenda politiko eta sozialean sartzea lortu da. "Indarkeria matxista" terminoak azaltzen du matxismoak barnean duen botere-desberdintasunaren harremana eta, aldi berean, ahalbidetzen du kontuan hartzea indarkeria matxista emakumeek batez ere jasaten badute ere, sistema heteropatriarkarrak gizon eta emakumei ezartzen dizkien eredu hegemonikoak emakumeek bezala hausten dituzten beste pertsona batzuek ere jasan dezaketela. Indarkeria horrek zigortu egiten ditu ereduak finkatzen dituen aginduak betetzen ez dituzten pertsona guztiak. Ildo horretan, lesbiana, gay, transexual eta bisexualak ere indarkeria matxistaren "xede" bilaka daitezke, egungo eredu heteronormatibotik irteten diren neurrian. Hala egitea eskatzen du, gainera 4/2023 Legeak LGTBI kolektiboko pertsonen eskubideen ingurukoak.

### **3.1. Bermeak**

Plana aurrera atera ahal izateko ezinbesteko gutxieneko batzuk egongo dira, Udalak bete beharko dituenak, Plana behar bezala garatzeko baldintzak bermatze aldera.

Hauek dira, TZMk eta hura osatzen duten 6 udalek Berdintasunerako Plana behar bezala aurrera eraman ahal izateko ezinbestean bete beharko dituen bermeak. Berme hauen betetze-maila zenbait adierazleren bitartez neurtuko dugu Planak irauten duen epealdian. Honela, zehaztutako berme horiek konpromiso neurgarriak izango dira, eta hauen betetze-mailak zerikusi zuzena izango du Planaren arrakastarekin.

BERMEAK	EGITASMOAK	ADIERAZLEAK	Txorierrri Mankomunitatea	Derio	Larrabetzu	Lezama	Loiu	Sondika	Zamudio
<b>Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa</b>	Mankomunitate gisan eta bai Udalek genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartzea (konpromisoa onartu Mankomunitateko Batzordean eta Udalbatzetan), horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz.	6 Udaletako Udalbatzetan genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu izana : Bai/ez							
		Onartutako konpromisoaren forma eta babesa: zer eratako konpromisoa hartu da (adierazpena...) eta zenbateko babesa izan duen (ahobatez onartua, aldeko/kontrako botoak)							
		Estrategia garatzeko koordinazio-egiturak edo koordinatzeko bideak martxan jarri izana, horien izaera (zer eratako egiturak jarri diren martxan) eta partaideak (kopurua, sailak, pertsonak sexuaren arabera)							
<b>Beharrezkoak diren baliabideak (aurrekontua, giza-baliabideak, baliabide teknikoak eta trebakuntza) berdintasuneko politika publikoen esku jartzea.</b>	Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea.  Berdintasun politikak garatzeko beharrezko bitartekoak bermatzea, pertsona horien lan-baldintzak zainduz.	Berdintasun politikak garatzeko Mankomunitateko eta udaletako urtekako aurrekontua dirutan eta aurrekontu osoarekiko zer % den							
		Berdintasun politikak garatzeko erabilitako bitartekoak							
		Bitartekoen izaera: trebakuntza, giza-baliabideak...							
		Berdintasun gaitetan trebakuntza-saioen kopurua							

		Trebakuntza-saioetan parte-hartu duten pertsona kopurua sailaren, udalaren eta sexuaren arabera							
<b>Planean inplikatutako Udal, sailen eta erakundeen erantzukidetasuna.</b>	Berdintasunerako gobernantzaren ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bokazioa dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztien erantzukidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak aldatzea eskatzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteen" gaitzat hartu izan ditugunak geure eginez...). Berme hau ezinbesteko baldintza da genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, aldi berean, erronka bat ere bada.	Berdintasun Sailaren eta Udaletako arduradun politiko eta teknikoen arteko harremana: -urtean egin diren bilera kopurua.							
		Sail ezberdinen arteko lankidetzaren/elkarlanaren bidez garatutako ekimen kopurua (urteka, inplikatutako sailak)							

## 6 PLANAREN INDARRALDIA

Planak guztira 4 **urteko iraunaldia** izango du, 2024ean abiatu eta 2027ra artekoa. Planak Mankomunitateko zein hura osatzen duten sei udaletako helburu estrategikoak jasotzen ditu, hauek berdintasun politikekin norabidea, ortzi-muga zabala jasotzen dute. Hau da, Mankomunitateak zein udalerrri guztiek batera berdintasun politikan aurrera egiteko estrategia amankomuna. Helburu estrategiko hauek betetzea ez da helburua, baizik eta norabide eta zoru amankomun bat eratzea. Gauzak horrela, helburu operatiboek erantzuten diote lau urtetan erantzun nahi diren erronkei, egingarriak eta urte gutxitan garatzeko aukera ematen dutenak hain zuzen.

Planaren antolaketa egitean, **urtero Mankomunitateak zein udalerrri bakoitzak kudeaketa-planak** diseinatu beharko dituela adostu dugu. Hona hemen hirurteko bakoitzean egitea aurreikusitako ekintza-kopurua:

MANKOMUNITATEA			
2024	2025	2026	2027
45	49	60	65

DERIO			
2024	2025	2026	2027
34	38	35	42

LARRABETZU			
2024	2025	2026	2027
44	47	40	46

LEZAMA			
2024	2025	2026	2027
32	37	35	39



LOIU			
2024	2025	2026	2027
34	34	36	45

SONDIKA			
2024	2025	2026	2027
37	38	36	45

ZAMUDIO			
2024	2025	2026	2027
37	37	40	43

## 7 ESKU-HARTZE ARDATZAK

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako berdintasunerako Plana Emakunderen VII. Planaren eskemari jarraiki eraikia dago.



### 7.1 Gobernu ona

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako antolakuntzan, funtzionamenduan eta jardueran genero-berdintasunaren ikuspegia txertatzen jarraitzea du helburu ardatz honek, emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin konpromisoa indartuz eta berdintasuna gobernagarritasun printzipio dela berretsiz.

Genero-ikuspegia administrazioan txertatzeak, berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzen laguntzen du. Izan ere, esku-hartze publikoaren eguneroko jardunean genero-ikuspegia integratzen badugu, emakume eta gizonen egoera, baldintza eta premia ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea lortuko dugu, horiei erantzun egokia emanez eta ezberdintasunak murrizteko urratsak eginez.

Berdintasunaren aldeko gobernantza garatzeak ardura partekatua inplikatzeko du, hain zuzen ere, berdintasuna bultzatzea Berdintasun sailaren ardura ez ezik, inplikaturako eragile eta sail guztien ardura bilakatzea. Beti ere, Berdintasun Sailaren eskutik eta horretarako, baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoekin hornitzea bermatuz.

Euskadiko Autonomia Estatuaren 9.2.d artikuluan zera adierazten da: herri-aginteei pertsonen eta taldeen berdintasunerako baldintzak sustatzeko eta hori lortzeko oztopoak ezabatzeke betebeharra dutela, berdintasun hori benetan eta modu eraginkorrean gauza dadin. Horrez gain, genero-ikuspegia administrazioaren jardunean integratzeko, Europako Kontseiluak "Genero zeharkakotasuna. Kontzeptu nagusiak, metodologia eta erabilera egokien aurkezpena" txostena aurkeztu zuen Estrasburgon 1998an.

Horietan oinarrituta, Euskal Autonomia Erkidegoko Berdintasunerako 4/2005 legeak neurri multzo bat arautzen du genero-ikuspegia euskal aginte eta herri-administrazioen jardunean

integratzeko: plangintza egitea; estatistikak eta azterketak hobetzea; langileen gaikuntza; eta berdintasun-printzipioa administrazioaren araudian eta jardunean txertatzeko prozedura ezartzea.

Azken finean, TZMk eta hura osatzen duten sei udalek gobernantzaren ardatzean berdintasunerako konpromiso politikoa eta teknikoa finkatu nahi dute, genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko eta, genero-ikuspegia botere publikoaren politika eta ekintza guztietan txertatzeko printzipioa gauzatu ahal izateko, politika horien diseinutik hasi eta ebaluaziora arte.

Gobernantza eredia egonkortzeko, sistematizazioa eta koordinaziorako eta elkarrekintzarako espazioak beharko dira. Esku-hartze integral horrek, TZMk eta hura osatzen duten sei udalek berdintasunaren alde hartutako konpromisoa indartzeaz gain, bere esku-hartze publikoa bidezkoagoa bilakatuko du.

## 7.2 Emakumeen ahalduntzea

Maila pertsonalean eta kolektiboan emakumeen autoestimua eta autonomia bultzatzea, maila sozial eta politikoetako erabaki-hartze eremutan aktiboki parte hartu dezaten.

Emakumeen eta gizonen berdintasunean oinarrituko den gizartea eraikitzeke emakumeen ahalduntzean eragitea ezinbestekoa bilakatzen da, euren parte-hartzea bultzatuz, eta emakumeak, historia, politika, ekonomia eta kulturako objektu izateari utzi eta beraien bizitzako subjektu aktibo bihurtuz.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak eman dira gure gizartean. Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletan emakumeen ahalduntzeari dagokionean, egiten den lana egituratu, antolatu eta sistematizatzeko erronka berriari heltzeko estrategiak landu ditu Plan berrian.

Zentzu honetan, III. Planaren garapenean zehar egongo den erronka nagusia izango da Jabekuntza Eskola sortzeko prozesua martxan jartzea eta Mankomunitatean zein udalerriz guztietan eskaintza eta irismena dibertsifikatzea, ahalik eta emakume gehienei iristeko helburuarekin, herriko emakumeen arteko sareak eta elkar ezagutza indartzearekin batera.

Interseksionalitatea aintzat hartuz, TZM osatzen duten sei udalerrietako aniztasuna aintzat hartuta lan egiten jarraitzea hurrengo urteetan ere, profil ezberdinetako emakumeengana iristea ahalbidetuz. Bide horretan, eskema honi jarraituko diogu: emakumeen eta gizonen desberdinkeria-egoeren kontzientzia hartu (jabetu), emakume bezala gaitasunak landu (ahaldundu) eta boterea hartuz egoera hori aldatzeko eragiteko ahalmena eduki (boteretu).

Boteretzearekin lotuta, garrantzia izango du emakumeek beraien ahotsak eta beharrak entzun ahal izateko parte-hartzeko bide eta espazioak eraikitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira. Emakumeen ahalduntzearekin lotuta, hauek dira dagozkionak:

*b) Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.*

c) Toki-eremuan programak egitea.

h) Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerkusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.

Horrez gain, legeak jasotzen du, baita ere, emakumeen parte-hartze soziopolitikoak bultzatzeko eta areagotzeko betebeharra ere baduela administrazio publikoak, bere esku dauden eremu guztietan.

Esku-hartze ardatz hau, Agenda 2030, gizarte-eredu jasangarriagoa izateko helburu estrategikoekin lerrotatuko da, izan ere, emakumeen ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gizartean egin behar den eraldaketa sozialerako.

Eremu honetan azken urteetan urrats nabarmenak ematea izango da erronka nagusietako bat datozen urteetan.

### 7.3 Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea

Gizarte-eredua aldatzeko urratsak ematen hastea, balio berdinzaleak herritarren artean zabalduz eta errotu daitezen sustatuz; beti ere udaletik eredu emanez.

Gizarte-eredu androzentriko eta matxista batetik berdintasunezko gizarte batera igarotzeko, beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere-eredu berriak eraikitzea. Sistema bidegabe eta desorekatu honi erantzungo dion eraldaketa, gizarte aurrerakoi eta jasangarriago baten aldeko apustua izan beharko litzateke.

Lan-merkatuan argi islatzen da sexuaren araberako egiturazko desberdinkeria, horrenbestez, kontuan hartu behar da enpleguaren arloko politika publikoak diseinatzeko eta horien eragina ebaluatzeko unean. Arreta berezia jarriz, enplegua bilatzeari eta ekintzaitzari laguntzeko lan-merkatuan dauden genero-joerak aztertzei, emakume kolektibo zaugarrienei arreta berezia eskainiz. Alegia, emakumeen behar berehalakoei eta dituzten epe ertain/luzeko interesei erantzun integralak eskaini ahal izateko.

Horrez gain, zaintzaren garrantzian eta honen eskubide kolektiboan oinarritutako gizarte-antolaketa bultzatzea ere oinarrizkoa izango da. Izan ere, sexuaren araberako lan-bereizketaren ondorioz zaintza-lanak emakumeen gain geratzen dira sistematikoki, modu prekario eta aitortu gabean, gainera, eta horrek inpaktu handia du beren bizitzetako gainontzeko alderdietan ere. Honela bada, ezinbestekoa izango da gizarte bezala zaintzarekiko erantzunkidetasuna lantzea.

TZMk eta hura osatzen duten sei udalek zaintza eta bizitza jasangarriak erdigunean jartzen dituen eredu ekonomiko eta soziala sustatu nahi ditu, eta aldaketa horietan agente aktiboa izan nahi du. Etxeetan, zein, etxeetatik kanpo egiten diren etxeko lanak eta zaintza-jarduerak sozialki eta ekonomikoki aitortzea lehen urratsa izango da.

Bestalde, pandemiaren eta honen ondorengo eszenatokian, harremanak eta parte-hartzeko eta lankidetzarako bideak ezarri beharko dira emakume talde eta talde feministekin, beti ere, ikuspegi interseksionala aintzat harturik.

Zentzu honetan, herriko eragile sozial, politiko eta ekonomiko guztiak inplikatzeko izango da, guztion eskubideak bermatzeko eta eredu sozial iraunkor eta berdinzaleago bat eraikitzen jarraitzeko bidea.

Modu zuzenenean eragiten digun legeari erreparaturaz, Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 legearen 7. artikuluan tokiko administrazioek berdintasunaren eremuan dituzten lege-betebeharrak jasotzen dira.

*f) Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.*

*i) Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.*

*j) Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.*

Horrez gain, legearen xedeetako bat emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna legeetatik haratago errealitatera ekartzea da. Hori horrela, gizarte eraldaketa ezinbesteko urratsa izango da berdintasuna egikaritzeko orduan.

#### **7.4 Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak**

Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa larrietako bat da. Emakumeen aurkako indarkeria, nagusitasun patriarkaleko botere-harreman desberdin eta hierarkikoen adierazpen bat da. Indarkeria matxista, mota guztietan (fisikoa, sexuala, psikologikoa, ekonomikoa edo zibernetikoa), oztopo bat da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko. Zentzu horretan, indarkeria matxistarik gabeko bizitzak lortzeko orain arteko esku-hartzeak finkatu eta sistematizatuko ditu TZMk eta hura osatzen duten sei udalek.

Istanbulgo Hitzarmenak ezartzen duen bezala: sexu-indarkeria, emakumeen eta nesken salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, derrigorrezko ezkontzak eta bortxazko beste praktika batzuk edo askatasuna bidegabe kentzea, baita emakumeen eta nesken duintasuna, osotasuna edo askatasuna kaltetzen duten edo lesionatzen ahal duten beste indarkeria-mota batzuk ere, erreferentziako araudian aurreikusi bezala hartuko dira aintzat.

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako lehentasuna izango da batetik, prebentziorako politikak eta programak inplementatzen jarraitzea eta bestetik, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alabei arreta integrala ematea, hala nola, erreparazioa eta oneratzea bermatzea, beti ere, emakumeak subjektu aktibo gisa kokatuz.

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako arreta integrala bermatzeko, bide eman beharko zaie protokolo bateratu eta eraginkorrak sortzeari.

## 8 HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA OPERATIBOAK

Definituriko ardatz bakoitzak helburu estrategiko batzuk ditu, TZMk eta hura osatzen duten sei udalerriek, oro har, berdintasun politiketan aurrera egiteko estrategia eta zoru amankomun bat markatzen dutenak. Planaren indarraldia amaitzen den 2027. urterako helburu operatiboak adostu ditugu, estrategia amankomun horretan udalerrri bakoitzaren errealitateari erantzuten dioten erronkak jasotzen dituztenak, norabide amankomun horietara gerturatzeko jorratu beharreko ibilbideak. Halaber, helburu operatibo bakoitzak neurri konkretu batzuk ditu, bide hori nola jorratu azaltzen dutenak.

Ardatz bakoitzaren tamaina ezberdina da, bat bereziki handia da eta gainontzeko hiruak txikiagoak. Hurrengo taulan ikus daiteke bakoitzaren dimentsioa:

GOBERNU ONA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA	INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK
3 HELBURU ESTRATEGIKO 12 helburu operatibo 32 neurri	2 HELBURU ESTRATEGIKO 6 helburu operatibo 16 neurri	3 HELBURU ESTRATEGIKO 6 helburu operatibo 15 neurri	3 HELBURU ESTRATEGIKO 5 helburu operatibo 19 neurri

1. GOBERNU ONA	
HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU OPERATIBOAK
1.1. BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA BERMATZEA	1.1.1. Mankomunitateko egituren, Udalen eta Berdintasun sailaren arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, beharrezko egiturak sortzea eta erakundetzea.
	1.1.2. Udaletan berdintasun politikak aurrera eramatea, sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak eta formulak sortzea eta elikatzea.
	1.1.3. Erakunde arteko koordinazio eta elkarlanerako guneekin hartu-eman sustatzea.
1.2. ESKUALDE-MAILAKO ZEIN UDALETAKO POLITIKETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREGANATZEA	1.2.1. Genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta -langileen artean.
	1.2.2. Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.

<b>1.3. LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA</b>	1.3.1. Mankomunitateko zein Udaletako inprimaki, datu-base eta erregistroetan sexuaren aldagaia txertatzea, hots, datuak sexuaren arabera bereizita jasotzea eta genero-ikuspegitik aztertzea.
	1.3.2. Komunikazioan berdintasuna txertatzea, Udalen eta mankomunitatearen jardunean.
	1.3.3. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jardueretan.
	1.3.4. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.
	1.3.5. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (Generoaren araberako Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioak)
	1.3.6. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.
	1.3.7. Pertsonen kudeaketa berdinizalea sustatzea

<b>2. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA</b>	
<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>HELBURU OPERATIBOAK</b>
<b>2.1. AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA SUSTATZEA INTERSEKZIONALITATEA ARDATZ HARTUTA</b>	2.1.1. Jabetze eskolak sortu, egituratu eta zabaltzea
	2.1.2. Eskualdeko emakumeen eta norbanako feministen arteko sareak indartzea
	2.1.3. Egiten den lanaren komunikazioa lantzea, irismena handitzeko
<b>2.2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA SUSTATZEA</b>	2.2.1. Mugimendu feministaren eta emakumeen antolakuntza-gaitasunak eta eragin politikoa indartzeko esku-hartzeak martxan jartzea
	2.2.2. Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik
	2.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea

<b>3. EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA</b>	
<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>HELBURU OPERATIBOAK</b>
<b>3.1. ZAINTZA-LANEN BANAKETA</b>	3.1.1. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea

<b>BERDINZALE ETA JUSTUAGOA BULTZATZEA</b>	
<b>3.2. BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BALIO GISA ULERTZEA</b>	3.2.1. Diskurtso feminista herritarren artean zabaltzeko ekimenak garatzea, berdintasunaren aldeko gizarte eredu bateranzko oinarri gisa
	3.2.2. Hezkidetza modu koordinatuan lantzea eskualde-mailan
<b>3.3. EMAKUMEEN AUTONOMIA EKONOMIKOA SUSTATZEA</b>	3.3.1. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea
	3.3.2. Emakumeen ekintzailatza sustatzea
	3.3.3. Emakumeen enplegarritasuna areagotzea

#### 4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

<b>HELBURU ESTRATEGIKOAK</b>	<b>HELBURU OPERATIBOAK</b>
<b>4.1. INDARKERIA MATXISTAREN PREBENTZIOA BULTZATZEA</b>	4.1.1. Prebentzio programak eguneratzea eta eragite-gaitasuna berreskuratzea
	4.1.2. Baliabideen inguruko ezagutza handitzea
<b>4.2. INDARKERIA MATXISTA KASUEN DETEKZIOA ETA ARRETA HOBETZEN JARRAITZEA</b>	4.2.1. Indarkeria kasuen detekzioa eta jarraipena hobetzea
<b>4.3. INDAKERIA JASAN DUTENAK ONERATZEA ETA AHALDUNTZE-PROZESUAK SUSTATZEA</b>	4.3.1. Erreparazio integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) bermatzea maila guztietan: indibidualean, kolektiboan eta publikoan bermatzea.
	4.3.2. Indarkeria jasan duten emakumeen ibilbidean laguntzea jabekuntzarako bitartekoak eskaintzea



## 9 EKINTZA-PLANA

Jarraian, Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako Berdintasunerako Plana garatzeko proposatutako neurriak jaso ditugu, bai eta zer urtetan burutzea aurreikusten ditugun, arduradunak nortzuk izango diren eta neurrien jarraipena egiteko adierazleak ere definitu ditugu.

Helburuak lortzeko proposatutako neurriek izaera jarraitua edo puntuala daukate; hau da, neurri batzuek urtez urtekako garapena izango dute, euren betetze-maila pixkanaka handitzen joango delarik. Beste batzuk, aldiz, puntualak izango dira eta beraz, urte konkretu batean gauzatuko dira.

Gainera, Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako Berdintasunerako Plana zeharkakotasunaren ikuspegitik landuko da, hots, Mankomunitatearen zein udal bakoitzaren arlo eta zerbitzu guztiek bere gain hartuko dute Berdintasunerako Plana: bai neurrien kudeaketa ekonomikoan eta garapenean islatu den konpromiso formal gisa, baita emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso gisa ere. Konpromiso horrek erantzukizunak bere gain hartzeko eta berdintasunerako politiken arloko trebakuntza-saioetan, bileretan eta abarretan parte-hartzeko prestutasunean izango du isla.

Zeharkakotasuna eta arlo guztien inplikazioa ezinbestekoak izango dira Plana aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, Berdintasun teknikariaren lana eta inplikazioa ez ezik, beste alorretako teknikariena ere beharrezkoa izango da, Planak alor ezberdin asko ukitzen baititu; beraz, lana modu transbertsanean egitea askoz eraginkorragoa izango da benetako inpaktua lortzeko.

Planaren bidez erdietsi nahi diren erronkak lortzeko, hainbat lan-esparru edo egitura beharrezkoak izango dira. Horietako bakoitzak funtzio eta zeregin zehatzak izango ditu. Hiru dira garapenerako proposatzen ditugun egitura nagusiak. Hona hemen planaren garapenean zehar martxan egongo diren egiturak:

1. **Berdintasun Saila**
2. **Koordinaziorako eta jarraipenerako talde teknikoa:** egun martxan dagoen egitura da euskara, kultura, esku-hartzea eta berdintasun teknikariak hartzen dute parte bertan. Helburua taldea handitzea izango da, udal ezberdinetako eta arlo ezberdinetako teknikari gehiago koordinazio egitura honetan inplikatzea hain zuzen.
3. **Jarraipenerako talde politikoa:** Berdintasun teknikaria eta udalerrri bakoitzeko alkatea edo erreferentziazko ordezkari politikoz zein idazkariez osatua.

4. **Mankomunitateko Berdintasun Batzordea:** Udalerri guztietan Berdintasun Batzordeak sortzea sustatuko da eta hauen arteko koordinazio, segimendu eta elkarlanerako egitura sortzea izango da espazio honen xedea. Era berean, mankomunitateko emakume, elkarte edota mugimendu feministaren parte-hartze soziopolitiko indartzeko espazioa ere izango da.

Jarraian, proposatutako egiturak, horien osaera eta funtzioak azaltzen dira.

Planaren garapenaren ardura nagusia **Berdintasun teknikariak** izango du, Berdintasunaren arduradun politikoarekin batera. Hau izango da planaren sustapenerako arduraduna eta jarraipen estuena egingo duena, urtean urteko kudeaketa planak eta ebaluazioak burutzearen ardura izango duena, nahiz eta beste udalerrietako arduradun politiko zein teknikoez ere parte hartu.

Txorierriko Mankomunitate Zerbitzuetako Berdintasunerako Teknikariak lanaldi osoko kontratua du berdintasunera zuzenduta. Teknikariaren lanpostua zehaztean, gainera, berdintasun legearen 17. Artikuluan zehaztu bezala, berdintasuneko berariazko prestakuntza duen pertsona bat izan behar dela jaso zen. Honela, berdintasun teknikariak 150 ordu baino gehiagoko formakuntza du berdintasunean (berariazko masterra, alegia) eta baita hainbat urteko esperientzia ere administrazio publikoan.

## 1. BERDINTASUN SAILA

Berdintasunerako Planaren sustapen, garapen eta jarraipen koherente eta koordinatua bermatzea.

### Parte-hartzaileak

- Mankomunitateko berdintasunerako arduradun politikoak.
- Mankomunitateko Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurriak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Planaren garapenean inplikaturako egitura eta eragile guztiak koordinatzea.
- Helburu eta denboren betetze-mailaren jarraipena egitea.
- Neurri-zuzentzaileak proposatzea eta neurri hauen ezarpena baloratzea.
- Planaren komunikazioa egitea.
- Lortutako helburuak mantentzeko beharrezko ardurak zehaztea eta tresnak kudeatzea.
- Planaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa egitea.

### Funtzionamendua

- Gune hau etengabeko koordinazioan egongo da eta behar beste bilera egingo ditu.

Planaren garapen egokirako eta, batez ere, zeharlerrotasunaren estrategia modu eraginkorrean txertatzen joateko ezinbestekoa izango da udaletako zein Mankomunitateko ordezkari politiko eta idazkarien inplikazio eta konpromisoa. Bada, Planaren helburu eta ekintzen jarraipena egiteko, elkarlanean esperientziak partekatu eta tokian tokiko errealitatek Plan bakar bati erantzuteko egitura izango da honakoa.

## 2. Jarraipenerako talde politikoa

Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako konpromiso politikoa eta teknikoa bermatzeko gunea.

### Parte-hartzaileak

- Mankomunitateko zein hura osatzen duten sei udaletako arduradun/ordezkarari politikoa
- Mankomunitateko zein hura osatzen duten sei udaletako idazkaraiak
- Berdintasun teknikaria

### Funtzioak

- Udal bakoitzaren eta Mankomunitatearen urteko ekintza-plana lantzea, nor bere eragin eremuan zabaltzea eta urte amaierako balorazioak partekatzea.
- Udaletan genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.

### Funtzionamendua

- Urtero, gutxienez behin, berariazko segimendua egingo dio Berdintasunerako Planaren garapenari; aurreko urteko betetze-maila aztertuz eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana martxan jarritz.

**Sailen arteko lana eta zeharlerroko estrategia bermatzeko ardura** duen gunea nagusia Koordinaziorako eta Jarraipenerako Talde Teknikoa izango da. Jada beste funtzio batzuk betetzen dituen gunea da, eta denbora darama martxan TZMn. Bertan koordinatzen dira Mankomunitatean zein udal bakoitzean aurrera eramaten diren prozesu esanguratsuenak eta Berdintasun Planarekin loturiko neurri eta eginkizun ezberdinak. Hauek izango dira Koordinaziorako eta Jarraipenerako Talde Teknikoak izango dituen egitekoak:

## 3. Koordinaziorako eta Jarraipenerako Talde Teknikoa

Berdintasunerako Planaren garapen-tekniko koherente eta koordinatua bermatzea, eta baita Planaren jarraipena egitea ere.

### Parte-hartzaileak

- Udal-sailetako teknikari edota arduradunak, udalerrri bakoitzetik bat gutxienez.
- Berdintasun teknikaria.

### Funtzioak

- Planaren testuinguruan aurrera eramango diren neurri gakoak bultzatzea eta koordinatzea, Planak koherentzia izan dezan.
- Udal bakoitzaren eta Mankomunitatearen urteko ekintza-plana lantzea, garapenaren jarraipena egitea eta urte amaierako balorazioak partekatzea.
- Udaletan genero-zeharlerrotasun estrategia txertatzea errazteko komunikazioa erraztea eta ahalbidetzea.
- Berdintasunerako Planaren segimendurako tresna elikatzea eta eguneratuta mantentzea.
- Ekitaldi bakoitza bukatzean urteko txostena osatu eta kontrastatzea, helburuetara gerturatzen ari garen ala ez ikusiz.
- Ekintza puntual batzuk koordinatzea, beharrezkoa den kasuetan (Planaren zehaztuta dago gunea honek izango duela ekintza batzuen ardura).

### Funtzionamendua

- Urtean bi aldiz bilduko dira gutxienez, bilerak udalerrri bakoitzean egingo dira bertako arduradun teknikoak eta berdintasun teknikariaren artean.
- Horrez gain, gunea honek bere ohiko dinamika izaten jarraituko du, eta bilera horietan beste gaiekin batera berdintasunarekin lotutako gaiak landuko dira.

Udaleko teknikari guztiek foro honetan parte hartzen ez dutela jakinik eta zeharlerroko estrategia garatu eta Plana benetan udal-jardueran integratzeko beraien parte hartzea eta inplikazioa ere ezinbestekoak direla jakinik, ezinbestekoa izango da Koordinaziorako eta Jarraipenerako Talde Teknikoan parte hartzen duten teknikariek bere sailetan bertan hitz egindakoa berri ematea zein gainontzeko teknikarien eta Berdintasun arloaren arteko harremana zaintzea.

Planaren garapenerako ezinbestekoa izango den beste egitura bat Mankomunitateko Berdintasun Kontseilua da. Egun, udalerrri batzuek halako egitura martxan badute ere, asko dira Berdintasun Batzordea eratzeko baldintza nahikorik ez dutenak; bide horretan, eraginkorra Mankomunitate mailako Kontseilu bat sortzea dela deritzogu. Planaren ekintza eta betekizun asko Mankomunitatearen esku egongo dira, udalerrri askoren gaitasun eta baliabide falta medio, beraz udalerrri guztietako emakumeak, talde feministak edota emakumeen elkarteak Mankomunitate mailan aurrera eramango diren ekintzetan parte-hartzeko eta hauek kudeatzeko aukera izateko egitura ezinbestekoa izango da.

#### 4. Mankomunitateko Berdintasun Kontseilua

Udalerrietako emakumeen parte-hartzeko markoa

##### Parte-hartzaileak

- Talde Feministak
- Emakumeen Elkarteak
- Berdintasunaren arduradun politikoa
- Berdintasun teknikaria

##### Funtzioak

- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko Mankomunitateko zein udaleko politikak gidatu eta aholkulari-lanak egin.
- Praktika onak partekatzea.
- Aukera berdintasunerako Mankomunitate zein udal jarduera-planak bultzatzea eta beraien jarraipena egitea. Halaber, Berdintasunerako Planaren printzipioak betetzen ote diren ikuskatzea.
- Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko neurriak sustatzea eta formulak proposatzea programak, ekintzak eta eskaintza bereziak planteatzeko instantzia ezberdinetan, bereziki, udal mailan.
- Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak egitea emakumeen bizitza kalitatea hobetze aldera.
- Emakume guztiek Mankomunitateko zein udalen gaietan parte hartu ahal izatea erraztea.
- Emakumeen egoera hobetzeko ekintza zuzenak edo zeharkakoak gauzatzen dituzten elkarte eta erakundeen arteko lankidetzeta eta kooperazioa bultzatzea.

##### Funtzionamendua

- Berdintasun Kontseilua urtean bi aldiz bilduko da, eta besteak beste, Planaren baitan jasotako ekintzen balantzea egingo dute.
- Urtean behin berariaz segimendua egingo dio Planaren betetze-mailari eta hurrengo urteko Kudeaketa Plana ezagutzeari.

## 10.2 Plana garatzeko baliabide ekonomikoak

Mankomunitateko Berdintasun Sailak urtero izango du aurrekontu propioa, eta aurrekontu honek Planeko ekintzak aurrera eramatea ahalbidetuko du. Era berean, udal bakoitzak bere partida propioa izango du, dagozkion ekintzak aurrera eramateko. Honela, ekintza-planean aurreikusi bezala, TZMk eta hura osatzen duten sei udalek urtero kudeaketa plana aurrera eraman ahal izateko beste baliabide zuzenduko ditu Berdintasun Sailera zein udal bakoitzean berdintasun politiken ardura teknikoa daraman arlora, edota Planeko ekintzak garatzeaz arduratuko diren beste sailetara; izan ere, gainontzeko sailek ere Planean beraiei dagozkien ekintzak garatu ahal izateko aurrekontua aurreikusi beharko dute.

2024rako Berdintasun sailak 78.106,99 €-ko aurrekontua izango du Planeko ekintzak aurrera eraman ahal izateko. Urtetik urtera aurrekontu hori beharretara egokitzen joan beharko da Mankomunitatea. Era berean, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udal bakoitzak bere aurrekontu propioa ere izango du.

Beste alde batetik, aipatu beharra dago urte batzuetan Planak aurrekontu handiagoa eskatu dezakeela, beraz, hori ere kontuan hartu beharreko zerbait da aurrekontuak zehazterako orduan.

Honela bada, azken urteetako bilakaerak adierazten du TZMk eta hura osatzen duten sei udalek orain arte berdintasun politikak garatzeko beharrezko baliabideak jarri dituztela, eta hurrengo urteetan ere hala egiten jarraitzeko konpromisoa dute.

## 10.3 Planaren ebaluazio-sistema

Ebaluazioa funtsezko prozesua da Planaren **betetze-maila zein den** eta martxan jarritako **ekimenez zer inpaktu izan duten jakiteko**. Zentzu horretan, hiru ebaluazio-mota burutuko ditu TZMk eta hura osatzen duten sei udalek: betetze-mailari dagokiona, emaitzei dagokiena eta inpaktuari dagokiona.

Ebaluaziorako sistema egokia ezarriz, hurrengo helburuak lortu ahal izango ditugu:

- Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako Berdintasunerako Plana aplikatzeak eman dituen emaitzak ezagutzea.
- Planaren neurriekin eta datuak biltzeko prozesuarekin lotutako arazoak detektatzea.
- Berdintasun-politikak erraztu edo lagundu dituzten faktoreak identifikatzea.
- Genero-zeharlerrotasunaren estrategiak Mankomunitatearen zein udalen barne-funtzionamenduan duen eragina, zein berdintasun-politikek herriarengan eta herritarrengan izan duten balizko inpaktua edota eragina zein den ezagutzea.

Ebaluaziorako **irizpide orokorrak** honako hauek izango dira:

- **Inpaktua:** Planak Mankomunitatean zein udal bakoitzaren barruan eta udalerrri-mailan izan duen eragina eta eragin dituen aldaketak.

- **Eraginkortasuna:** Planaren erronka eta helburuen betetze-maila eta neurrien garapen-maila.
- **Estaldura:** Planaren onuradunen kopurua eta Planaren garapenean lortutako parte-hartzea zenbatekoa eta zer kalitatekoa izan den.
- **Betearaztea:** ezarritako kronogramaren betetze-maila eta Planari esleitutako aurrekontuaren egokitasuna.
- **Kalitatea:** Planaren segimendu eta ebaluazioan bildutako datuen eta informazioaren kalitatea.

### 10.4 Inpaktu adierazleak

Berdintasunerako Plana izatea eta hau garatzea garrantzitsua da, baina betetze-maila bezain garrantzitsua (edo garrantzitsuagoa) da egiten ari garen lanarekin lortzen ari garen eragina neurtzea. Horretarako, aurrerapausoak ematen ari garen ala ez neurtzeko inpaktu-adierazle batzuk zehaztu ditugu.

Hona hemen inpaktu-adierazleen zerrenda. Hauei segimendua egitea ahalbidetuko du Exceleko tresnak.

HELBURU-GAKOEN INPAKTU-ADIERAZLEEN TAULA	
HELBURU OPERATIBOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK
1.1.1. Mankomunitateko egituren, Udalen eta Berdintasun sailaren arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, beharrezko egiturak sortzea eta erakundetzea.	Koordinazioa eta elkarlana bermatzeko Udaletan sortu diren egiturak, bitartekoak eta formulen deskribapena
	Koordinazio-egituren bilera-kopurua eta horietan parte hartu duten udal-sail kopurua.
1.1.2. Udaletan berdintasun politikak aurrera eramatea, sailen arteko koordinazioa eta elkarlana bermatzeko, egiturak, bitartekoak eta formulak sortzea eta elikatzea.	Koordinazioa eta elkarlana bermatzeko Udaletan sortu diren egiturak, bitartekoak eta formulen deskribapena
	Koordinazio-egituren bilera-kopurua eta horietan parte hartu duten udal-sail kopurua.
1.2.1. Genero-ikuspegia txertatzeko prestakuntza areagotzea udal-teknikari eta -langileen artean.	Udaletako trebakuntza-planetan, genero-zeharlerrotasuna txertatzeko trebakuntzarekin zerikusia duten ikastaroen %
	Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua (sailka) eta gogobetetze-maila.
1.2.2. Udal-ordezkarien sentsibilizazioa eta ezagutza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.	Genero zeharlerrotasunarekin edota berdintasunarekin zerikusia duten formakuntza kopurua
	Trebakuntza horietan parte hartu duten pertsona-kopurua (aruda politikoa/saila) eta gogobetetze-maila.
1.3.3. Genero-ikuspegia txertatzea sektorekako eta zeharkako jardueretan.	Egin diren diagnostiko kopurua eta zein sailetan egin diren
	Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua.
1.3.4. Kontratuetan, dirulaguntzetan eta hitzarmenetan berdintasunerako	Berdintasunerako klausulak txertatu diren kontratuen %
	Klausulak txertatu dituen sail-kopurua.

<b>klausulak sartzea.</b>	Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua.
<b>1.3.5. Araudian berdintasunaren printzipioa txertatzea (Generoaren arabera Eraginaren Aurretiazko Ebaluazioak)</b>	GEAEa kopurua, Udalaren/Erakundearen eta sailaren arabera sailkatuta. Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua.
<b>1.3.6. Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.</b>	Eredua definitu da: Bai/Ez Martxan jarritako ekimen-pilotu kopurua.
<b>1.3.7. Pertsonen kudeaketa berdinizalea sustatzea</b>	Barne Plana egin duten udalerrri/mankomunitate kopurua
<b>2.1.1. Jabetze eskolak sortu, egituratu eta zabaltzea</b>	Jabekuntza eskolak sortu dira: Bai/Ez Egin diren ekimen kopurua eta parte-hartu duten emakume kopurua
<b>2.1.2. Eskualdeko emakumeen eta norbanako feministen arteko sareak indartzea</b>	Sareak eraiki dira: Bai/Ez Sare horietan biltzen diren emakumeen kopurua eta aniztasun-maila (jatorri, adin, dibertsitate funtzional...arabera) Talde feminista edota emakume taldeen artean elkarlanean garatutako ekimen-kopurua.
<b>2.2.2. Gizarte- eta komunitate-sarea indartzea genero-ikuspegitik</b>	Udal fitxategian eskatzen den dokumentazioan sartu diren adierazle kopurua eta hauen deskribapena Elkarteei emandako formakuntza kopurua eta parte-hartu duten pertsona kopurua eta elkarteak Emakumeen jarduna ikusarazteko egin diren ekimen kopurua eta parte hartu duten pertsona kopurua
<b>2.2.3. Udal politika publikoetan eragiteko bideetan sakontzea</b>	Berdintasun Kontseilua eratzeko prozesua abiatu da: Bai/Ez Berdintasun Kontseilua eratzeko gogoeta-prozesuan inplikaturako norbanako/eragile kopurua.
<b>3.1.1. Zaintzaile profesionalen lan-baldintzak hobetzea</b>	Etxeko langileen zerbitzuak kontratatzen dituztenekin langileekiko tratu onak sustatzeko kontzientziazio kanpaina egin da: Bai/Ez Etxez etxeko zaintza-zerbitzua eta bestelako zaintza-zerbitzuak kontratatzeko pleguetan lan-baldintza duinak bermatzeko ezarri diren neurri kopurua
<b>3.2.2. Hezkidetzaren modu koordinatua lantzea eskualde-mailan</b>	Hezkidetzaren dinamika: bilera-kopurua eta parte-hartzen duten eragile-kopurua. Dinamika horietatik diseinatu eta abiatu diren egitasmoak
<b>3.3.1. Pobreziaren feminizazioa murrizten laguntzeko programak garatzea</b>	Identifikaturako beharrei erantzuteko eskaini diren baliabide/programa kopurua eta deskribapena Pobrezia egoeran edo arriskuan dauden emakumei Udalak eskaintzen dizkien baliabide eta erantzuneko gogobetetzea neurtu da: Bai/Ez Baliabideak/zerbitzuak hobetzeko martxan jarri diren egitasmo kopurua eta deskribapena
<b>3.3.2. Emakumeen ekintzailtza sustatzea</b>	Ekintzailtza-programetan genero-ikuspegia txertatu da: Bai/Ez Ekintzailtza-programetan emakumeentzako egin diren mentoretza programak kopurua eta parte-hartu duten emakume kopurua



<b>3.3.3. Emakumeen enplegagarritasuna areagotzea</b>	EGAZ-eko langileekin elkarlanerako partekatu diren espazio kopurua
	Indarkeria jasan duten emakumeentzako sustaturiko enpleu-plan kopurua eta parte-hartu duten pertsona kopurua
<b>4.1.1. Prebentzio programak eguneratzea eta eragite-gaitasuna berreskuratzea</b>	Udalerrietako zein Mankomunitateko Jai Batzordek indarkeria matxistaren kontrako protokoloa landu da: Bai/Ez
	Eskoletan egiten diren prebentzio-programak egokitu dira: Bai/Ez
	Programen ebaluazio-adierazleen bilakaera
<b>4.2.1. Indarkeria kasuen detekzioa eta jarraipena hobetzea</b>	Koordinazio-protokoloaren sistematizazio-maila
	Koordinazio mahaiaren bilera-kopurua eta parte hartzen duten eragile-kopurua.
<b>4.3.1. Erreparazio integrala (juridiko, ekonomikoa, osasun-arlokoa...) bermatzea maila guztietan: indibidualean, kolektiboan eta publikoan bermatzea.</b>	Sare-herritarren izaera, aniztasun-maila...
	Erreparazioa lantzeko antolatutako ekimen-kopurua.
<b>4.3.2. Indarkeria jasan duten emakumeen ibilbidean laguntzea jabekuntzarako bitartekoak eskaintzea</b>	Indarkeria matxista egoeratik atera diren emakumeen saretzea ahalbidetuko duten prozesuak martxan jarri dira: Bai/Ez
	Espazio horietan parte hartzen duten emakume-kopurua eta aniztasun-maila
	Espazio horietan parte hartzen dutenen gogobetetze-maila.

## 10.5 Urteko kudeaketa-planak

Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako Berdintasunerako Plana garatzeko urteko kudeaketa-planak prestatuko ditu Berdintasun arloak urtero, Planaren garapena errazte aldera.

- Plana indarrean egongo den urte bakoitzean urteko kudeaketa-plan bat prestatuko du Berdintasun arloak, urte horretan landu beharreko ibilbide eta urrats konkretuak zehaztuz Mankomunitatearentzat bai eta udalerrri bakoitzarentzat ere; behin prest daudenean gainontzeko sailekin zein arduradun politikoekin kontrastatu eta landuko ditu. Kudeaketa plan hauek, gainera, udalerrri eta sail bakoitzera egokituko dira. Hau da, Exceleko tresnak aukera ematen du ekintza bakoitzaren arduraduna nor edo nortzuk diren filtratzeko eta, beraz, sail edo udal bakoitzari berari urte horretan dagozkion ekintzak bakarrik emateko.
- Urte bakoitzaren hasieran, Berdintasun arloak aurreko urtean garatutako kudeaketa-planari dagokion memoria idatziko du; horretarako, gainontzeko udal-sailek emandako informazioa erabiliko du.
- Urtez urteko memoria-txostenak Planaren jarraipenerako guneetan aurkeztuko dira.

## 10.6 Planaren segimendua

Aurrez aipatu bezala, Txorierriko Mankomunitateko eta hura osatzen duten sei udaletako III. Plana Excel batean jasota dago segimendua modu errazean egin ahal izateko.

Excel dokumentua hamaika ataletan banatuta dago: Planaren ikuspegi orokorrari dagokiona, Printzipio gidariak, bermeak, Plana bera osotasunean (Mankomunitateari zein udal bakoitzari dagokiona bakoitza orri batean dago jasota) eta inpaktu-adierazleei dagokiena.

Lehenengo atalak **Planaren argazki orokorra** zein den ikustea ahalbidetuko du, hau da, planteamendu orokorra zein den argitzen eta orotara nolakoa den ikusten.



**TXORIERRIKO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO PLANA**

Txorierriko emakumeen eta gizonen berdintasunerako Plana Mankomunitatea osatzen duten 6 udalerrien errealitateari erantzuteko tresna gisan diseinatu da. Azken urteetan udalerri bakoitzak berdintasun politiken diseinu eta garapenean egindako ibilbidea askotarikoa izan da eta egun errealitate ezberdinak topatzen ditugu. Ordea, Plan honek errealitate bakoitza kontuan harturik estrategia amankomun bat garatzea du helburu. Eskura ditugun baliabide eta egiturak eraginkortasunez baliatuz, herri bakoitzaren helburu operatiboei erantzun eta, era berean, Mankomunitate mailako koordinazio eta elkarlana sustatuko duen Plan bat da honakoa.



**Planaren esku-hartze eremuak eta programak:**

GOBERNU ONA	EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	EKONOMIAK ETA GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA	INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK
3 HELBURU ESTRATEGIKO	2 HELBURU ESTRATEGIKO	3 HELBURU ESTRATEGIKO	3 HELBURU ESTRATEGIKO

GOBERNU ONA	1.1. BERDINTASUNERAKO KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA BERMATZEA 1.2. ESKUALDE-MAILAKO ZEIN UDALETAKO POLITIKETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO EZAGUTZA BEREKANATZEA 1.3. LAN-PROZEDURETAN GENERO-IKUSPEGIA TXERTATZEA
-------------	--

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA	2.1. AHALDUNTZE PERTSONALA ETA KOLEKTIBOA SUSTATZEA INTERSEKZIONALITATEA ARDATZ HARTUTA 2.2. EMAKUMEEN PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA SUSTATZEA
-----------------------	--

Bigarren eta hirugarren ataletan arestian azaldu ditugun **printzipio gidariak** eta **bermeak** daude jasota:

PLANAREN PRINTZIBIO GIDARIAK	
Txorierriko Berdintasunerako Planak ekintza eta helburu zehatzet haratago, hainbat printzipio gidari ditu oinarrian, zeinak ezinbestekoak izango diren hurrengo urteetako lana nola eta nondik egingo den ulertzeko. Printzipio gidari hauek Euskadiko marko programatikoan (VII. Planean) jasotzen direnak dituzte oinarri, zeinak 4/2005 Berdintasun Legearen printzipio berriein osatu diren.	
PRINTZIBIOA	AZALPENA
<b>Paradigma feminista</b>	Feminismoak gidatzen du Berdintasunerako III. Plana, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio antizak barne. Teoria eta mugimendu feminista eraldaketa sozialerako ekarpen handia egiten ari da une historiko-politiko honetan, agenda feminista aintzat hartzean datza.
<b>Tratu-berdintasuna eta ikuspegi intersektionalaren integrazioa</b>	Emakumeek eta gizonen eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak, era berean baliatzen dituztela bermatu behar da. Eta aukera-berdintasuna bermatu behar da, alde batetik, boterea, baliabideak eta onurak eskuratzeko abiapuntu edo hasierako baldintzetan, eta bestetik, horiek guztiak baliatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzetan.  Era berean, desberdintasunei heltzeko ikuspegi gisa, kontuan hartzen du generoa beste diskriminazio faktoreekin (araza, klase soziala, desgaitasun-maila, adina, hizkuntza, orientazio sexuala, identitate sexuala, familia-eredua eta inguruabar pertsonalak eta sozialak) duen aldebereko erlazioa. Estrategia gisa ulertuta, diskriminazioaren oinarriak lotzen ditu diskriminazio horiek elikatzen dituen gizarte, ekonomia, politika eta lege-inguruarekin eta presio eta pribilegio bizipenak egituratzen dituenarekin.
<b>Genero-ikuspegiaren integrazioa.</b>	Analisi eta tresna metodologiko gisa, mendekotasun patriarkarrean oinarritutako genero desberdintasunak agerian jartzeko baliatu da. Alegia, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi den honetan, agenda horrek sistematikoki izan du kontuan gizonen eta emakumeek dituzten behar eta interes ezberdinak.
<b>Sexuaren araberako rola eta estereotipoak ezabatzea</b>	Rol eta estereotipoak emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerian oinarri dira, eta horien arabera esleitzen zaie emakumei etxeko eremuaren ardura, eta gizonen berriz, eremu publikoarena, balorazio eta aitoren ekonomiko eta sozial oso ezberdinak eginez. Hori haintzat hartuko ditugu Planaren garapenean, kotuan izanik, etxeko lanen eta zaintza-lanaren aitortpena sustatu behar dutela, politika publikoen elementu nagusi gisa. Baita ere, enpleguaren arloan gertatzen den segregazio horizontalari aurre egiteko, lanen balorazio desberdinari helduko dio.

BERMEAK	EGITASMOAK	ADIERAZLEAK	Txorierri Mankomunitatea	Derio	Larrabetzu	Lezama	Loiu	Sondika	Zamudio
Emakumeen eta gizonen berdintasunerako konpromiso politikoa	Mankomunitate gisan eta bai Udalek genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartzea (konpromisoa onartu Mankomunitateko Batzordean eta Udalbatzetan), horretarako beharrezko bitartekoak bideratu eta koordinazio-egiturak onartuz.	6 Udalekako Udalbatzetan genero-zeharlerrotasunaren estrategia garatzeko konpromisoa hartu izana; Baitzez.  Onartutako konpromisoaren forma eta babesa: zer eratako konpromisoa hartu da (adierazpena...) eta zenbateko babesa izan duen (ahobatez onartua, aldeko/kontra botoak)  Estrategia garatzeko koordinazio-egiturak edo koordinatze bideak martxo jarri izana, horien izatea (zer eratako egiturak jarri diren martxoan) eta partaideak (kopurua, sailak, pertsonak sexuaren arabera)							
Beharrezkoak diren baliabideak (aurrekontua, giza-baliabideak, baliabide teknikoak eta trebakuntza) berdintasunerako politika publikoaren esku jartzea.	Berdintasun politikak garatzeko beharrezko aurrekontua bermatzea.	Berdintasun politikak garatzeko Mankomunitateko eta udalekako urteko aurrekontua dirutan eta aurrekontu osoarekiko zer % den  Berdintasun politikak garatzeko erabilitako bitartekoak  Bereitekoen izatea: trebakuntza, giza-baliabideak...  Berdintasun gaitan trebakuntza-saioren kopurua  Trebakuntza-saioren parte-hartu duten pertsona kopurua sailaren, udalaren eta sexuaren arabera							
Planean inplikaturako Udal, sailen eta erakundeen erantzukidetasuna.	Berdintasunerako gobernantza ardatzean jasotako ekintzek norabide horretan eragiteko bakoitia dute. Berdintasuna sustatzeko sail guztiaren erantzukidetasuna lortzea prozesu bat da: lan egiteko moduak, aldatzea eskaltzen du (elkarlanean) eta norberaren lana ulertzeko moduak ere aldatzea (orain arte "besteek")	Berdintasun Sailaren eta Udaleko arduradun politiko eta teknikoaren arteko harrera: -urtean egin diren bilera kopurua.  Sail ezberdinen arteko lankidetzak/elkarlanaren bidez garatutako elan kopurua (urteko, inplikaturako sailak)							

Laugarren ataletik hamargarrenera Mankomunitateko zein udal bakoitzeko Planak jasotzen dira. **Ardatz bakoitzaren zehaztasunak** ikusi ahal izango ditugu bertan. Urrats guztiak banan-banan, bakoitza zein epetan garatu behar den, arduraduna eta inplikaturako eragileak zein diren, helburu gakoak eta urrats bakoitzari segimendua egiteko jarraipen-adierazleak. Gainera, atal honek ekintzen betetze-mailaren segimendua egin eta urtez urte zer egin den eta zer ez jasotzeko aukera ere ematen du. Honela, urtez urte ekintzen betetze-maila zein den eta honen inguruko oharak



TXORIERRIKO EMAKUMEEN ETA GIZON



AFDATZAK	HELBURU ESTRATEGIKOAK	HELBURU OPERATIBOAK	EKINTZAK	O	JARRAIPIEN ADIERAZLEAK	HELBURU GAKOAK	Betetze-maila 2024	Azalpenak	Betetze-maila 2025	Azalpenak	Betetze-maila 2026	Azalpenak			
1.1. BERDINTASUNERAKO OINARRIAZKOAK ETA ELKARLANA BERMATzea	1.1.1 Mankomunitateko egituraren, Udalen eta Udalen berdintasunaren arteko koordinazioa eta elkarrizketa bermatzea, beharrezko egiturak sortzea eta erakundetzea.	1.1.1.1 Mankomunitateko egituraren, Udalen eta Udalen berdintasunaren arteko koordinazioa bermatzea. Berdintasun Batzordea sortu eta funtzionamendua adostu.	Udalerenako talde lehiatzen, emakume elkarten eta noizbaiten eta Berdintasun sailaren koordinazioa bermatzea. Berdintasun Batzordea sortu eta funtzionamendua adostu.		Batzordea sortu da. Baitzez. Batzorde kopurua urtean eta parte-hartu duten elkarte edota noizbaitak.		Egin da								
			Udalerako berdintasun arduradunak, idazkariak eta Berdintasun sailaren arduradunak koordinazioa bermatzea. Berdintasun Batzordea sortu eta funtzionamendua adostu.		Koordinazioa espazio berria da. Baitzez. Koordinazioa guzuzen funtzionamendua adostu da. Baitzez.		Erekin egin da								
			Udalen berdintasun arduradun teknikoak eta Berdintasun sailaren arduradunak Udalbatzetan Plan operatiboa diseinatu, hori eginduko egin eta abokatu.		Plan Operatiboak elkartearen diseinatu da. Baitzez. Plan Operatiboaren jarraitzea eta abokatu da. Baitzez.		Ez da egin								
			Udal bakoitzak berdintasun sailaren funtzioak egiteko sailak edo sailak dituen espazioak zein izango diren eta gaitz eginduko diren eta zein maitasunekin eginduko diren zehatu.		Udal bakoitzak Plan larritzeko balantza duen gaitz eginduko egin du. Baitzez.										
			Udalerako beharrien eta Mankomunitateko berdintasun sailko teknikoaren arteko zuzabteak, beharrezko baliabideak lortzea bermatzea. Udalaren laguntza emana edota zabalduak argitzea bermatzea.		Laguntza erantzukidetzaren metodo sistematu da. Baitzez.										
			Berdintasun teknikoak Mankomunitateko gaitz egiteko parte hartzen jarraitu. Berdintasunerako kudeatza zarea. Berdintasuna...		Zer mailatan parte hartu du. Sailak. Parte hartu duen mailatan.										
1.2. ESKUALDE-PIBILAKO ZEIN UDALERAKO POLITIKAREN DENERO, IKUSPEGIA TOPIKATZEKO ERAGINTZA BEREGANTZEA	1.2.1 Genero-ikuspegia txertatzea prestatzea areagotzea udal-tekniko eta -langileen artean.	1.2.1.1 Udalerako berdintasun sailaren funtzioak egiteko sailak edo sailak dituen espazioak zein izango diren eta gaitz eginduko diren eta zein maitasunekin eginduko diren zehatu.	Udal-nekazariek, -langileek eta Mankomunitateko langileek berdintasun sailaren arduradunak berriak zein diren, arduradunak, laneko ebaluazioa egiteko erabiltzen.		Trebakuntza-beharrik identifikatu da. Baitzez.										
			Udal-nekazariek, -langileek eta Mankomunitateko langileek berdintasun sailaren arduradunak berriak zein diren, arduradunak, laneko ebaluazioa egiteko erabiltzen.		Genero-ikuspegia txertatzea aldatu da udalerako berdintasun sailaren funtzioak egiteko sailak edo sailak dituen espazioak zein izango diren eta gaitz eginduko diren eta zein maitasunekin eginduko diren zehatu.										
1.2.2 Udal-arduradunaren erantzukidetasuna eta eragintza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.	1.2.2.1 Udal-arduradunaren erantzukidetasuna eta eragintza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.	1.2.2.1.1 Udal-arduradunaren erantzukidetasuna eta eragintza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.	Udal-arduradunaren erantzukidetasuna eta eragintza areagotzeko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.		Uterotzaren gaitz egiteko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.										
			Datu-bilerak egiteko erabiltzen diren erabiltzaileak, arduradunak, erantzukidetasunaren gaitz egiteko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.		Azterketa egin da. Baitzez. Gaitz egiteko oinarrizko trebakuntza eskaintzea.										

jasotzen joango gara, segimendua estua egitea ahalbidetuz.

**Inpaktu adierazle segimendua** hamaikagarren atalaren bidez egin ahal izango dugu. Honetarako, beti ere ekintza zehatzak kontuan hartuta, helburuekin lotzen diren inpaktu-adierazle batzuk identifikatu ditugu (aurrez aurkeztutakoak), egiten ari garen lan hori zer eragin izaten ari den neurtu ahal izateko.

HELBURU-GAKOEN INPAKTU-ADIERAZLEEN TAULA		2024						2025							
HELBURU OPERATIBOAK	INPAKTU-ADIERAZLEAK	Misakomunitate	Derio	Larrabetze	Lezama	Loie	Soadika	Zumedio	Misakomunitate	Derio	Larrabetze	Lezama	Loie	Soadika	Zumedio
1.1.1. Marduneharria eratorri, bidaiari eta berdintza eratorri arteko berdintasuna eta alferrena bermatu, beharrezko gaitasunak eta trebak ematea.	Konfiantza eta alferrena bermatu. Udako zerbitzuak eta gaitasunak, bizi-eraketak bermatu behar dira. Konfiantza-eraketak bermatu eta bizi-eraketak eta bizi-eraketak bermatu.														
1.1.2. Udako berdintasun politikak eratorri eratorri, jalarri eta berdintasun eta alferrena bermatu, beharrezko gaitasunak eta trebak ematea.	Konfiantza eta alferrena bermatu. Udako zerbitzuak eta gaitasunak, bizi-eraketak bermatu behar dira. Konfiantza-eraketak bermatu eta bizi-eraketak eta bizi-eraketak bermatu.														
1.2.1. Gasa-ikurpegiak txarretan sartzea eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.2.2. Udako berdintasun politikak eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.1. Gasa-ikurpegiak txarretan sartzea eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.2. Udako berdintasun politikak eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.3. Gasa-ikurpegiak txarretan sartzea eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.4. Kontrolatzen, diru-eraketan eta bizi-eraketan berdintasunak bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.5. Berdintasun politikak eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.6. Berdintasun politikak eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.3.7. Berdintasun politikak eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.1. Jabetza eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.2. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.3. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.4. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.5. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.6. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.7. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.8. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.9. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.10. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.11. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.12. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.13. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.14. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.15. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.16. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.17. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.18. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.19. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														
1.4.20. Eratorri eratorri eta alferrena bermatu.	Udako zerbitzuak bermatu, gaitasunak bermatu eta bizi-eraketak bermatu. Txarretan sartzea bermatu eta bizi-eraketak bermatu.														

Tresna elikatzeaz Berdintasun teknikaria arduratuko da nagusiki; hala ere, aproposena litzateke udalari bakoitzeko arduradun teknikoak berari dagozkion ekintzen betetze-maila osatzea.

Urtero garapenarekin lotutako segimendua egiteaz gain, Planaren indarraldiaren erdian, 2025ean, alegia, tarteko ebaluazio bat egitea aurreikusi dugu. Garrantzitsua izango da garapenaren erdian geldialdi bat egin, egindako lana eta egoera zein diren baloratu eta, beharrezkoa balitz, Planaren norabidea egokitzea testuinguru berriari hobeto erantzun diezaion.

## 11 PLANAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazioa Berdintasunerako Planen arrakastarako gakoetako bat da. Komunikazioa beharrezkoa da herritarrei eta eragileei Mankomunitatearen zein udalen asmoen berri emateko eta baita Planaren garapenean euren parte-hartze aktiboa eta inplikazioa lortzeko ere. Oinarrizkoa izango da komunikazioa lantzea Mankomunitateari zein udal bakoitzari barrura begira ere, udal langileek Planaren eta honen edukien berri izan dezaten. Azkenik, ez da ahaztu behar berdintasun-agenteekiko eta elkarte feministekiko komunikazioa. Izan ere, azken horiek Planaren diseinu-fasean inplikatu dira, eta kontuak ematea merezi dute, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legeak eskatzen duen bezala. Horrela, Planaren garapenean parte hartzen jarraitu ahal izango dute.

Hori dela eta, hurrengo urteetan Berdintasunerako Planari lotutako komunikazioan sakontzea zein berdintasun politikei lotutako komunikazioa nola egin lantzea da erronketako bat. Horretarako urtero, urte hasieran, kudeaketa-planean aurreikusitako ekintzak zeintzuk diren eta horiek aurrera eramateko dauden komunikazio une garrantzitsuak identifikatuko dira, eta baita hauek nola komunikatuko diren adostu ere.

Planaren garapenean 3 komunikazio-une garrantzitsu egongo dira:

### Hasierako komunikazioa:

Behin Berdintasunerako Plana onartuta, horren berri emango da bai Mankomunitate zein udal bakoitzaren barruan baita herrietan ere:

- Udal-langile guztiei eta, bereziki, Planaren ekintzen garapenean ardura zehatzak dituzten langileei:
  - Euskarri bat sortuko da eta aurkezpen saioak didaktikoak egingo dira eta Planaren dokumentua bidaliko zaie.
- Ordezkarri politiko guztiei:
  - Ordezkarri politiko guztiei Planaren txostena bidaliko zaie.
  - Herritarren Batzordeetan aurkeztuko da Plana.
- Herritarrei:
  - Hedabideen bidez prozesuaren amaieraren berri eta Plan berriaren indarraldiaren berri emango zaie herritarrei.
  - Plana Mankomunitateko zein udal bakoitzeko webguneetan txertatuko da herritar guztientzat uneoro eskuragarri egon dadin.
  - Inork informazio gehiago nahi edo beharko balu Berdintasun Sailera jotzeko aukera izango du.

### Berdintasunerako Planaren garapeneko urteetan

- Udal-mailan:
  - Mankomunitate-mailan dauden segimendurako egituren bidez emango zaie langileei Planaren garapenaren berri; horretarako aurrez aipatutako espazioak erabiliko dira.

- Herri-mailan: Planarekin lotutako ekintza batzuek beste batzuek baino lanketa komunikatibo handiagoa eskatuko dute, herritarren parte hartzea edo inplikazioa beharko duten heinean. Kasuan kasu egokitzen joan beharko gara.
  - Udaleko webgunean Planaren inguruko informazio eguneratua izango da; sare sozialak ere erabiliko dira, batik bat ekintza puntualen berri emateko.
  - Herriko emakume eta eragileekin sortutako foro ezberdinetan Planaren berri emango da eta ahal den heinean honen segimendua egiteko espazioak ahalbidetu, herritarrek interesa balute behintzat.

### **Planaren amaierako komunikazioa**

Berdintasunerako Plana osotasunean garatu ondoren, ebaluazioan lorturiko emaitzen gaineko informazioa zabalduko da Mankomunitate zein udal bakoitzaren barruan zein herri-mailan. Hau zehazki nola egingo den Planaren indarraldia amaitzean erabakiko da, momentu horretan abiatutako prozesuaren arabera eta horrekin modu koherentean.